

#06

LITERATURA TESTU ETA KO SINBOLOEN ANALISIRAKO OINARRIZKO EZAGUTZAK

Lilia Leticia García Peña

Colima-ko unibertsitatea

liliagarciap@hotmail.com

Aipatzeko gomendioa || GARCÍA PEÑA, Lilia Leticia(2012): "Literatura testuetako sinboloen analisirako oinarritzko ezagutzak" [artikulu linean], 452°F. *Literaturaren teoria eta literatura konparatua aldizkaria*, 6, 124-138, [Kontsulta data: dd/mm/aa], <http://www.452f.com/pdf/numero06/06_452f-mis-lilia-leticia-garcia-peña-eu.pdf>

Ilustrazioa || Laura Valle

Itzulpena || Ane Lopez

Artikulua || Jasota: 27/06/2011 | Komite zientifikoak onartuta: 15/11/2011 | Argitaratuta: 01/2012

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkataritzarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Kulturaren historiari dagokionean, sinboloen iraunkortasun eta zentzu aberastasuna ukaezinak dira, eta literatura testuen espazioa da bere oinarrizko dimentsioetako bat. Artikulu honetan literatura obren eremuan sinboloen analisirako oinarrizkoak diren zenbait kategoria teoriko aurkeztu nahi ditut. Hala, kontzeptu bakoitza definitu eta sinboloen interpretazio-lanean duten zeregina aurkezten saiatu naiz. Oinarri teorikorako sinboloen munduko ikertzaile eta kritiko nagusien ekarpenez eta, baita nire esperientziaz ere, baliatu naiz.

Gako hitzak || Literaturaren teoria | Sinbolo | Mito.

Abstract || The persistency and richness of the sense of symbols in the history of culture is undeniable, and one of the fundamental dimensions is its realization in the space of literary texts. In this article I intend to present a deployment of the theoretical categories that appear essential of the analysis of symbols in the scope of literary work. I also define each concept and try to show its competence in the work of symbol interpretation. As a theoretical basis I recover the contributions of the leading scholars and critics in the world of symbols as well, as my own experience.

Keywords || Literary Theory | Symbol | Myth.

0. Sarrera

Testu literarioen oinarrizko dimentsioetako bat, zentzua sortzeari dagokionean, dimentsio sinbolikoa da. Sinboloak unitate txiki-txiki batzuk dira, adierazpen energia biltzeko gaitasun handia dutenak, garai eta testuinguru batetik bestera alda daitezkeenak, eta, modu harrigarrian, kulturaren historian egonkor iraun, eta aldi berean, testuinguru semiotiko ugarira molda daitezkeenak.

Sinboloen munduan murgilduta bizi gara. Zuriaren, eguzkiaren, uraren balio sinbolikoa ezagutzen dugu; Chevalier eta Cirlot-en sinboloen hiztegi-maisu lanak kontsultatzen ditugu; bezperako gaueko ametsetako irudietan sinbolo bat ikusi izanaren ziurtasunaz esnatzen gara batzuetan. Diskurtsoen espazioan, adierazteko beste modurik ez dagoenean, sinboloen bitartez egiten dugu, kontziente zein inkontzienteki, hitzekin zein hitzik gabe. Horrelakoa da gizakiaren izaera: sinbolikoa.

Jung eta Kerényi-ren (2003:18) arabera, hizkuntza sinbolikoarekin topo egiten dugunean arreta ipini eta hitz egiten utzi behar zaio, besterik ez. Hori benetako baieztapena dirudi, baina hala izan dadin, ezer baino lehen, sinboloak identifikatu eta beste esanahi elementuengandik desberdintzeko gaitasuna eduki behar da. Horrez gain, sinboloek ezin dezakete euren burua adierazi: identifikatu ostean interpretatzeko lastertasuna eskatzen dute osotasunean ulertu ahal izateko.

1. Sinboloen jatorria eta definizioa

Noiz agertu ziren lehenbiziko sinboloak gizakien errealitatean? Jakina denez, eboluzio biologikoaren prozesu naturalak gizakian (gizakian besterik ez) gaitasun desberdintzaile bat agerrarazi zuen: sinboloak erabiltzeko gaitasuna, alegia. «La criatura del género *Hombre* se convierte en un ser humano sólo cuando es introducida en ese orden de fenómenos que es la cultura y participa de tal orden. La llave de este mundo y el medio de participar en él es el símbolo» (White, 1982: 55).

Sinbolo oro gizadiaren testigantza unibertsala dela egia bada ere, ezin dira euren kokaleku konkretutik at, kultura zehatzetik at, interpretatu. Lotman-ek (1993) adierazten duenez, sinboloak izaera bikoitza du: alde batetik, errepikakortasunari esker bere izate aldagabean burutu egiten da; eta bestetik, «el símbolo se correlaciona activamente con el contexto cultural, se transforma bajo su influencia y, a su vez, lo transforma». Autore horren arabera, sinboloak ez dira garai zehatz batekoak, kultura zeharkatzen dute iraganetik etorkizunerantz. Hala, sinboloaren memoria, kultura memoriari dagokionean, beti da

testuinguru ez sinbolikoko memoria baino zaharragoa eta, gainera, egonkortasun handiagoa du. Hau da, sinboloa bestelako kultura bektoreen mezulari izango da (Lotman, 1993).

Sinboloak kulturaren espazioan aztertu behar dira. Hemen «kultura» terminoa Peter Berger (2002: 14) autorearen arabera darabilgu, «las creencias, valores y estilos de vida de las personas corrientes en su existencia cotidiana» esanahiarekin.

Lotmanen planteamenduek guk darabilgun kulturaren nozioa aberasten dute kultura lengoia eta testu sistematizat, sozializatutako informazioaren gordelekutzat, hartzen duen nozioarekin. Lotmanek kultura «la totalidad de la información no hereditaria y el modo de su organización y su conservación» (aipua: Zylko 2005) gisa definitzen du, kultura historian zehar sortutako sistema semiotikoen sarea baita.

Lotmanek (2001) «semiosfera» deritza esanahiaren kultura-espazioari. Semiosfera inguruan duen espaziotik banatuta dago; horra «muga» nozioaren garrantzia. Zylkoren (2005) arabera, mugaren (límite) zeregina giza espazioan barreiatzen diren informazio elementuak pasatzen uzten edo galarazten dien iragazki edo hautaketa mekanismo gisa jardutea da. Mugen eginkizuna «estrecho cuello de botella» batena da, hau da, «mensajes desde fuera tienen que forzar su paso para convertirse en hechos de la semiósfera dada» (Zylko, 2005).

Sinboloak gizakien historian noiz agertu ote zirenari eta euren jatorriari buruz aritu gara. Baina, zer da sinbolo bat? Nola definitu daiteke? Sinbolo bat analizatzeko, bestelako zentzu fenomenoetatik isolatu eta bere existentzia berezitua oinarritzeko gai izan behar dugu. Definizio ugari eman dira «sinbolo» terminoaren inguruan, hala ere, definizio zehatz-zehatz bat hartuko dugu oinarritzat, Jung-ek (1983: 343) ematen duena, alegia: «un símbolo real, a saber: la expresión de una entidad desconocida».

Ikuspegi metodologikotik, honakoa aitortu daiteke: «el símbolo es un caso límite del conocimiento indirecto» (Durand, 1993: 18), hau da, aspektu zehatza eta bertan ez dagoen esanahia adierazten edo epifanizatzen duen itxura hautemangarria du sinboloak. Ikurrak adierazten du, sinboloak, irudikatzen.

Sinbolo hitza *syn* (ondoan) eta *ballo* (jaurti) grezierako erroetatik dator. Etimologikoki, sinboloa gure buruan desberdintzat ditugun bi elementu konektatzen dituen lotura da. Sinboloak lotzeko joera dauka, hau da, muga edo haustura bat dagoen tokian josteko joera dauka. Hori dela eta, «toda sutura es simbólica y todo símbolo ha de ser comprendido como vínculo o sutura» (Lanceros, 1997: 51).

Beuchot-ek dioten bezalaxe, sinboloak giza izaeraren ertzak erakarri eta elkartu egiten ditu: «de alguna manera el símbolo alude tanto a la parte afectiva como a la parte cognoscitiva del hombre. Las une, las junta, las conecta, como es su labor hacer: la de conectar, es un conector, un mediador» (2004: 145).

Sinboloaren berebiziko ezaugarrietako bat bukagabetasuna da. Sinboloak interpretatzean, sinboloa berez entitate anbiguo bat dela jakin behar dugu, ez duela inoiz bere esanahia guztiz asetzen. Irakurketak esanahira hurbildu eta ingura dezake, baina ez du inoiz zeharo bukatzen.

Ricoeur-en arabera, sinboloa bi norabideko egitura bat da, momentu semantiko bat eta ez-semantiko bat dituen. Momentu semantikoa zentzu «literal y el sentido figurativo de una expresión metafórica»-ren (2001: 67) arteko harremanaren bidez adierazten da, eta horrek sinboloak hitzez hitzeko zentzuarekiko «excedente de sentido» (2001: 68) noiz duen ohartzea errazten du, izan ere, «el excedente de sentido es el residuo de la interpretación literal» (2001: 68). Autore horren ikuspegiaren arabera, hitzez hitzeko zentzua ulertzea da sinbolo batek zentzu zabalagoa hartzen duela ikustea ahalbidetzen duena: «sin embargo, para aquel que participa del sentido simbólico, realmente no hay dos sentidos, uno literal y el otro simbólico, sino más bien un solo movimiento, que lo transfiere de un nivel al otro y lo asimila a la segunda significación por medio del literal» (2001: 68).

Sinboloen beste ezaugarri bat erredundantzia da, errepikatzen dena bakarrik singinifikatiboa den heinean. Hala, Jaques Vidal-ek «pregnantzia» deritzona ere erabil daiteke sinboloa definitzeko, hau da, bere izaera «energia laborategi» (1997: 1656) baten antzekoa da, zentzua biltzeko ahalmen izugarria dauka, eta horri esker «kondentsadore semiotiko» (Lotman, 1993) bihur daiteke.

2. Sinboloak eta arketipoak

Sinboloaren definizio bat azaldu dugu. Orain sinboloekin lanean ari garenean lehenago edo beranduago arketipoak agertzen direla ikusiko dugu. Sinboloaz haratago aurkitzen dira, haratago darabilt biak desberdintzen dituen izaera baino gradua dela uste baitut. Bestela esanda, Frye-k (1991: 135) «arketipo» deritzo «la imagen típica o recurrente»-ari besterik ez. Jung-ek «los contenidos de lo inconsciente personal [que] son en lo fundamental los llamados *Complejos de Carga Afectiva*, que forman parte de la intimidad de la vida anímica» (1994: 10) eta arketipo deritzogun inkontziente kolektiboaren edukiak bereizten ditu. Gainera, inkontziente kolektiboaren barrenean datzan eta zeinaren isla edo adierazpen indibidualak soilik ikus ditzakegun eredu sinbolikoa osatzen duen

arketipo izaera bat dagoela azpimarratzen du: «sólo indirectamente puede aplicarse a las representaciones colectivas, ya que en verdad designa contenidos psíquicos no sometidos aún a elaboración consciente alguna, y representa entonces un dato psíquico todavía inmediato» (1994: 11). Eta nabarmentzen du: «el arquetipo representa esencialmente un contenido inconsciente que al concienzializarse y ser percibido cambia de acuerdo con cada conciencia individual en que surge» (1994: 10-11).

Arketipoak sinbolo paradigmaticoak direla esan daiteke (terminoaren etimologiak horixe indartzen du: *arché* erroak *primitibo* esan nahi du eta *tipos*-ek, *marka*, *irudi*, *eredu*) eta analistak bakarrik ahal izango du balore hori kultura testuinguru jakin batean zehaztu. Biak, sinboloa zein arketipoa, kulturaren memorian eta zentzuaren indar kolektiboetan ainguratzen dira. Biek dituzte azaldutako ezaugarriak: antzintasuna, anbiguitasuna, errepikakortasuna, ikonotasuna eta pregnantzia; baina arketipoa bere osaeraren antzintasun nabarmenagatik, giza inkontzientearen sakonenean errotuta egoteagatik, esperientzia kolektiboa erakarri eta biltzeko ahalmenagatik, eta, hortaz, zentzuaren adierazkortasuna ondorio duen denbora eta espazio zabaltasunagatik bereizten da. Jungék (1994: 44) *agure jakintsua* ezartzen du esanahiaren arketipo adibide gisa, *arima* bizitzaren arketipo gisa eta *itzala* geure buruekin topo egitearen arketipo gisa.

3. Sinboloaren ikonotasuna eta irakurketa analogikoa

Aipatutako ezaugarriek ikertutako testuinguruan sinbolo baten presentzia aurkitzen lagundu dezakete, baina, behin identifikatuta, nola irakurri? Sinboloaren beste ezaugarri bat hura irakurtzeko gakoa eskaintzen diguna da: ikonotasunerako joera.

Sinbolo orok dauka, edukia adierazteko duen moduan, lotura ikonikorako joera. Ikonoa, grezieraz *eikon* (irudia, antzekotasuna, parekotasuna) esan nahi duena, adierazitako objektuarekin antzekotasun lotura duen adierazpen bat da. Hortaz, ikonoa ikurrak objektuarekin antzekotasuna duenean gertatzen dela esan daiteke.

Ikonoaren nozioak, XX. mendeko ikerketa semiotikoek berriztuta ere, ohitura zaharra dakar, erretorika eta gramatika klasikoko parte baitira eta Erdi Aroko eta Errenazimenduko literatura alegoriko-sinbolikoarekin harreman estua baitauka, baita grezierako terminoaren baliokide den latineko *imago* hitza dela medio ere. Aragüés-ek *imago* edo *icón* terminoak «breve ilustración de un asunto o del aspecto de una persona por medio de una comparación visual» (2002: 82) gisa definitzen ditu.

Ikono bat topatuko dugu «cuando existe semejanza parcial entre el representante y el representado, es decir, cuando existe una relación de semejanza entre la estructura relacional del ícono y la estructura relacional del objeto representado» (Beristáin, 2001: 467). Sinboloaren ageriko alderdiak, hautemangarriak, beste alderdira, ezezagunera, garamatza; bi alderdiak konektatzen diren mugak izaera ikonikoa dauka. Ikonotasuna esanahai-antzekotasunen ardatzaren gainean eraikitzen den semiosi mota bat da. Peirce-k dio ikono bat ageri dela «cuando hay una similitud topológica entre un significante y su denotado» (Sebeok, 1996: 44). Hortaz, ikonotasunak zentzumenak zeharkatu eta kontzeptu bat adierazteaz haratago, irudi sensual eta sensorialak sortzeko adierazpen gaitasuna ematen dio sinboloari.

Azpiparratu beharra dago ikonotasuna ez dela ikusizkoaren eremura mugatzen. Aristotelek berak definizioa zabaldu zuen «desde ser una representación fundamentalmente visual hasta abarcar toda la experiencia cognitiva y epistemológica» (Sebeok, 1996: 44). Hala ere, analisi sinbolikoan ezin da ikonoaren kutsu bisuala alde batera utzi. Nire ustez, Greimas-ek hoberen azaldu du ikonotasunaren fenomeno semantikoa dela ilusio erreferentziala sortzen gehien laguntzen duena:

La iconización designa, dentro del recorrido generativo de los textos, la última etapa de la figurativización del discurso, en la que se distinguen dos fases: la figuración propiamente dicha que da cuenta de la conversión de temas en figuras, y la iconización que, al encargarse de las figuras ya constituidas, las dota de atributos [*investissements*] particularizantes, susceptibles de producir la ilusión referencial (Pimentel, 1998: 30).

Argi dago sinbolo orok keinu ikonikoa daukala eta, ondorioz, izaera analogikoa duela, izan ere «la iconicidad es la representación (siempre analógica) de una cosa con base en sus cualidades, de modo que requiere buscar las semejanzas (que son cualitativas) y ser consciente de las diferencias (que son cualitativas también)» (Beuchot, 2004: 77).

Ikuspuntu metodologikotik, beraz, esan daiteke irakurketa analogikoa dela sinboloen irakurketa propioa. Analogia izaki edo objektu desberdinetan existitzen diren antzeko ezaugarrietan oinarritutako arrazoiketa da. Grezieratik dator: *analogos* (eman) hitzetik, alegia, eta honakoa esan nahi du: «semejanza en ciertos aspectos de cosas distintas: griego: *analogía*: correspondencia, proporción matemática y, de *análogos*: proporcional, según una proporción» (Gómez de Silva, 1988: 57).

Sinboloen irakurketa eta interpretazio lanean, irakurketa analogikoak ageriko zentzuaren (sinbolizatzailea) eta ezkutuko zentzuaren (sinbolizatua) arteko harremanaz jabetzen laguntzen digu. Sinboloek

bi momentuz (semantiko eta ez-semantiko) osatutako eraketa eta izaera ikonikoa izanik, eskatzen duten harreman analogikoa berebizikoa da lehen esanahitik, hitzez hitzeko esanahitik, bigarrenera, eta momentu semantikotik ez semantikora doan lokarria argitzeko.

Cirlot-ek (2007: 46) «principio de identificación suficiente» deritzon harreman analogikoa fenomeno sinbolikoaren muintzat hartu daiteke, izan ere, irudi sinbolikoa barneko analogia bat da «relación necesaria y constante» baita. Ricoeur-ek dio sinboloak irakurtzean «el peligro [...] consiste en llegar demasiado aprisa, en perder la tensión, en diluirse en la riqueza simbólica, en la abundancia del sentido» (1999: 433). Horrela, irakurketa analogikoak interpretazioan laguntzen du, antzekotasun eta desberdintasunen oinarrian lotura lana egiten baitu.

4. Sinboloa eta mitoa: proposamen mitrokritikoa

Rama-k dio mitoak ere zentzuzko fenomeno analogikoak direla:

Nacen espontáneamente en la intersección de dos redes de efectos: los efectos en la conciencia de las relaciones de los hombres entre sí y con la naturaleza, y los efectos del pensamiento sobre esos datos de representación a los que hace entrar en la maquinaria compleja de los razonamientos por analogía (1982: 291).

Baina, zein da sinbolo baten eta mito baten arteko harremana? Batera aztertu behar dira? Metodologikoki, esan beharra dago sinboloek ez dutela zertan mitoen testuinguruan agertu. Sinbolo guztiek ez dute funtzionatzen horrela, mito guztiek, ordea, hizkuntza sinbolikoa darabilte.

Duranden arabera, mitoa honakoa da: «un sistema dinámico de símbolos, arquetipos y esquemas; sistema dinámico que, bajo el impulso de un esquema, tiende a constituirse en relato» (2004: 64). Hala ere, nabarmendu beharra dago autore honek adierazpen zehatz batetan, hala nola goranzko bertikaltasun eskeman edo beheranzko eskeman, irudikatzen den «generalización dinámica y afectiva de la imagen»-tzat (2004: 62) ulertzen duela eskema.

Mittoa errealitatea kontzeptualizatzeko modurik zaharrena da, eta horrexegatik dauka dimentsio kognitibo bat. Hizkuntza sinbolikoan azaltzen dena beti da kontakizun bat: mitoa bertsio ugaritan eraberritzen den testu potentzial bat da, eta bertsiook dira, hain zuzen ere, guri heltzen zaizkigunak. Mitoak zentzu efektu gisa egitura bikoitza dauka: azaleko bat, izaera narratiboduna eta diskurtsoaren hariak osatutakoa, eta sakoneko bat, izaera sinbolikoduna.

Mitoak ez dira hizkera arruntean darabilgun bezala «gezurrak» ezta «fikzioak» ere, ezta historiaurreko elementuak ere. *Pervivencias del mito y mitos enmascarados* izeneko obra zoragarrian, Eliade-k mitoen benetako zentzia «más allá de la historia» (2000: 145) dagoela esaten du, kontakizun hauen esentzia ez dela egi edo faltsu izatean oinarritzen, edukiaren baliozkotasunean baizik. Izan ere, gizakia bere bidean lagundu eta birsortuz, sortuz, desmitifikatuz eta birmitifikatuz gure garaira heldu diren kontakizunak dira. Honako hau ere esaten du: «ciertos comportamientos míticos perduran aún ante nuestros ojos. No se trata de “supervivencias” de una mentalidad arcaica, sino que ciertos aspectos y funciones del pensamiento mítico son constitutivos del ser humano» (2000: 155). Azkenik, gogoratu beharra dago, Eliaderen ustez (200:162) «la prosa narrativa, la novela especialmente, ha ocupado en las sociedades modernas, el lugar que tenía la recitación de los mitos y los cuentos en las sociedades tradicionales y populares».

«Mitokritika» terminoa Durandek asmatu zuen hirurogeita hamargarren hamarkadan, 1949an Charles Mauron-ek asmatutako *psicocrítica* termino proposamenan oinarrituta, zeinarekin «a la significación de todo relato»-rentzako (Durand 1993: 341) ezinbestekoa den kontakizun mitikoa analisiaren foko gisa kokatzen duen literatura edo arte kritika modu baten erabilerari erreferentzia egiteko bultzatu zuen. Mitokritikak premisatzat hartzen du sinbolo baten dauden «los motivos redundantes u obsesivos»-ak biografia pertsonala baino testuinguru sakonago baten ulertu behar direla diskurtsoko integrazio eta antolaketaren gako izan daitezten.

Aipatu beharra dago irudi sinbolikoen sistematizazio handi eta egokienetariko bat Durandek *Las estructuras antropológicas del imaginario* (Les Structures anthropologiques de l'imaginaire, 2004: 442-443) obran eskaintzen duena dela. Sistematizazio hori bi erregimen edo polaritatetan –eguna eta gaua– oinarrituta dago eta gizakian menderatzailatzat dituen hiru erreflexuri –jarrera–menderatzailea, kopulazio-menderatzailea eta digestio-menderatzailea— erreferentzia egiten dion sailkapen isotopikoa azaltzen du. Hori ardatz duelarik, sinboloak sailkatu egiten ditu: sinbolo teriomorfoak, niktomorfoak, katamorfoak; goranzko sinboloak, ikuskizuneko sinboloak, diaretikoak, inbertsioaren eta intimitatearen beheranzko sinboloak eta baita sinbolo ziklikoak ere.

Duranden arabera, ikuspegi metodologikoari dagokionez, kontakizun mitikoaren analisia geruza mitemikoei heltzen dituen hiru urratsetan egin daiteke. Hasteko, gaiak, hau da, errepikatzen diren motiboak, lotzen dira. Bigarrenaz, egoerak, subjektuak eta leku eta denbora koordinatuak aztertzen dira. Eta azkenik, «localización de las distintas lecciones del mito y de las correlaciones entre una lección de un mito con otros mitos de una época o de un espacio cultural

bien determinado» (1993: 343) egiten da. Hala, mitokriketak diskurtso bateko mito nagusi eta haren bertsio garrantzitsuenak bereiztea ahalbidetu eta subjektu diskurtsiboaren ezaugarri pertsonal batek joera mitologiko nagusien berrespen edo transformazioan eragiten duela frogatzen du: «tiende a extrapolar el texto o el documento estudiado, a abarcar, más allá de la obra, la situación biográfica del autor, pero también a alcanzar las preocupaciones socio o histórico-culturales» (Durand, 1993: 347).

Hortaz, Duranden ustez, «la mitocrítica reclama, pues, un “mitoanálisis” que sea a un momento cultural y a un conjunto social determinado lo que el psicoanálisis es a la psique individual» (1993: 347). Mitoanalisiak mito nagusiak momentu historikoetatik eta giza talde eta harreman motetatik bereiztea du helburu. Izan ere, maila mitikoa ez da beti agerikoa, ezkutu eta isilpe edota mozorrotuta egon daiteke, hori dela eta, hura zehaztu eta argitzen duen prozesu bat eskatzen du.

5. Sinboloa imaginario, kultura memoria eta ohituran

Metodologiari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea sinboloak, arketipoak eta mitoak giza imaginarioaren adierazpen moduak direla, eta horregatik, irudizat hartzen direla. Castoriadis-ek (1988) «irudi»-ek ez duela «kalko» edo «isla» esan nahi, baizik eta eskema antolatzaile eta eratzzaile gisa imaginario erradikalaren operazioa esan nahi duela azpimarratzen du. Irudi multzoak kultura errealitatea ulertzeko moduaren adierazpena den imaginarioa osatzen du. Autore honek dioen legez, irudiek sinboloetara jotzen dute osagai bila eta, aldi berean, sinbolismoak zentzu berriak ulertzea ahalbidetzen duen gaitasun imaginarioa eskatzen du: «el simbolismo supone la capacidad de poner entre dos términos un vínculo permanente de manera que uno “represente” al otro» (2003: 220).

Adierazpen bat imaginarioaren unibertso sinbolikoan kokatzen den irudi edo irudien sistema bat da, zeinaren bitartez gizakiak bere burua ikusteko, hautemateko eta azaltzeko duen modua adierazten den. Norbanakoak –eta barne dauden taldeak– giza errealitateari lotzen dira aipatu giza imaginarioaren adierazpenen bitartez. Adierazpenak talde soziokultural batek komunean dituen sinesmen eta kultura konbentzio multzoak adierazteko modua da. Norbanakoak eta kolektiboak (taldeak, klaseak, nazioak) giza errealitateari lotzen dira giza imaginarioaren adierazpenen bitartez. Irudi sinbolikoak irudimenaren ariketa gisa sortzen dira eta adierazpenarekin lotzen dira hura osatzen duten datu hautagarriei eta memoriari esker, bizitako esperientzietan oinarritzen direlako.

Sinboloak banakako diskurtsoetan burutzen dira, aldatu egiten dira, pertsonalizatu, baina beti daude lotuta kultura imaginarioko talde adostasunekin. Hala, metodologiaren ikuspegitik arreta merezi duen beste dimentsio batekin egiten dugu topo: sinbolo oro kultura memoriaren eta talde memoriaren parte da. Duch-en arabera, «esta dinámica de la memoria colectiva, creadora incesante de nuevas posibilidades en los trayectos históricos de los grupos humanos, es como tal, una función productora de la misma sociedad» (2002: 166). Autore horren ustez, talde memorian ohitura jakin baten *continuum*-a bizi, birsortu eta adierazten da; hori dela eta, talde memoria memoria *eratzaille* eta memoria *eratu*-a baino askoz gehiago dela esan daiteke.

Talde memoriaren nozioak ohituraren edo, hobe esanda, ohituren, bidera garamatza: ohituren eguneratze, errepikapen eta berrasmatzea da kultura memoriaren dinamika. Sinboloa diskurtsorik gabe ere eta diskurtsotik at existitzen da: kulturaren memoriaren barne-barnetik irten, subjektu diskurtsiboaren memorian berpiztu eta testuan gauzatu egiten da.

Ohitura talde mailako fenomeno bat da, non bizipen multzo bat giza talde batetan belaunaldiz belaunaldi igarotzen den. Hala, Perezek (2001) dioenez, pentsamendu eta bizipenak, modu batean edo bestean, beti dute izaera historiko eta soziala. Autoreak azaltzen duenaren arabera, bi ohitura mota nagusi daude: ohitura faktikoak (teknikak, erabilerak eta egunerokoak) eta hitzezkoak, ahozko zein idatzizkoak. Zein bide hartu gorabehera, ohituraren teorian «ohitura» eta «ohiturak» desberdintzen dira. Hala, ohitura kultura sistemak edo prozesuak osatzen du eta historian zehar zenbait aldaeratan agertzen da. Ohiturek, ordea, izaera historikoa dute. Hortaz, ohitura ohituren barnean besterik ez da existitzen (2001: 59).

6. Sinboloa espazio sozial eta diskurtsiboan

Ohituren eta kultura memoriaren parte izateaz gain, sinboloak espazio sozial eta diskurtsibo zabal batean kokatzen dira. Nire ustez, ez da posible sinboloen norabide sozialaren inguruan hausnartu barik, haiek interpretatzea.

Sinboloen dimentsio sozialaren inguruko ikuspegi argitzaile bat Pierre Bourdieu-rena dugu. Soziologo honek dimentsio sozialaren adierazpena barnean zenbait atal dituen espaziotzat hartzen du:

El campo social se puede describir como un espacio pluridimensional de posiciones tal que toda posición actual puede ser definida en función de un sistema pluridimensional de coordenadas, cuyos valores corresponden a los de las diferentes variables pertinentes (1990: 283).

Bourdieuaren arabera, okerra da gizarte klaseei buruz hitz egitea –zentzu metodologikoa salbuespen. Izan ere, espazio sozialean kokatzen diren eta bertan duten posizioagatik nabarmentzen diren «agente» eta «agente talde» terminoak erabili beharko lirateke: «la posición de un agente determinado en el espacio social puede definirse entonces por la posición que ocupa en los diferentes campos, es decir, en la distribución de los poderes que actúan en cada uno de ellos» (Bourdieu, 1990: 283).

Esan bezala, espazio sozialean metodologikoki besterik ezin dira desberdindu *klaseak*. Horien definiziotzat honakoa hartzen da:

conjuntos de agentes que ocupan posiciones semejantes y que, situados en condiciones semejantes y sometidos a condicionamientos semejantes, tienen todas las probabilidades de tener disposiciones e intereses semejantes y de producir, por lo tanto, prácticas y tomas de posición semejantes (Bourdieu, 1990: 284).

Boterea espazio sozialean indar edo kapitalen (kapital ekonomiko, kapital kultural eta kapital politikoa) ondorio gisa agertzen da, eta azpimarratu beharra dago, Bourdieuk, ikuskera marxistari begiratu bat eman ostean, ekonomismoa eta objetibismoaz haratago doala borroka dimentsio sinbolikora, beste kapitaltzat hartzen den horretara, luzatzeko.

Bourdieuarekin jarraiki (1990:285), espazio soziala, beraz, «espacio de relaciones» bat da, non agenteak, euren kokaleku eta kapitalen arabera, mugitu eta mobilizatu egiten diren. Identitate soziala mundu soziala ikusteko moduari dagokion «trabajo de representación» (1990: 287) bat dakarren eraikuntza bat da. Agenteek adierazpen bat, hau da, termino sinbolikoekin osatu eta adierazten den munduaren ikuspegi bat, egiten dute aipatu espazio eta mundu sozialarekin.

Azkenik, sinboloa burutzen den espazio diskurtsiboa jorratuko dugu. Sinboloak giza hizkuntza guztietan aurki badaitezke ere, guk hitzezko hizkuntzan jarriko dugu arreta. Zentzu horretan, Bajtín da hoberen azaltzen duena giza jardueraren maila guztiek lotura dutela hizkuntzaren erabilerarekin eta horrek, ondorioz, modu diskurtsibo ugariak sortzen dituela. Izan ere, hizkuntzaren erabilera maila bakoitzari genero diskurtsibo bat dagokio: kontakizuna, elkarrizketa, gutuna, diskurtso zientifikoa, diskurtso politikoa eta, noski, literatura diskurtsoa, besteak beste: «cada enunciado separado es, por supuesto, individual, pero cada esfera del uso de la lengua elabora sus tipos relativamente estables de enunciados a los que denominamos *géneros discursivos*» (Bajtín, 1998: 248).

Diskurtsoko esaldi orok hiru momentu ditu: tematiko bat (zer esaten da?), estilistiko bat (nola esaten da?) eta antolaketako bat

(nola antolatzen den esaten dena?). Esaldia burutzen den maila komunikatiboaren izaerak zehazten ditu hiru momentuon ezaugarriak.

Enuntziatua, Bajtínen arabera –eta Saussure-ren ikuspegia ez bezala– giza komunikazio-katearen segmentu bat da, «unidad real de la comunicación discursiva» (Bajtín, 1998: 255), alegia. Eta bere mugak subjektu diskurtsibo aldaketak zehazten du, hori dela eta, enuntziatua eguneroko elkarrizketa bateko galdera bat izan daiteke, baina baita diskurtso politiko oso bat edota eleberri bat ere; enuntziatu diren heinean, berehala edo denborarekin erantzun bat sorrarazten duten gertaera diskurtsiboak baitira.

Bajtínen «genero diskurtsibo» nozioak hitzezko espazio batetan, heterogenotasunean, eta subjektu diskurtsiboen interakzio sozialean burutzen dela pentsa daiteke. Zentzu horretan, genero diskurtsiboak literatura diskurtsoan azaltzen den sinboloa aztertzea ahalbidetzen du, baita oreka generikoan dagoenean ere, «correas de transmisión entre la historia de la sociedad y la historia de la lengua» (Bajtín, 1998: 254) gisa eratzten baitira.

7. Ondorioak

Lan honetan sinboloen identifikazioa eta interpretazioa oinarritzen duten funtsezko kategoriak ukitzen saiatu naiz. Euren jatorri kulturalari eta anbigutasun, bukagabetasun eta errepikakortasun ezaugarriei buruz hausnartu dugu. Sinboloaren izaera ikonikoan oinarritutako irakurketa analogiko zehatza proposatu dut. Sinbolo eta arketipoaren arteko eta sinbolo eta mitoaren arteko harremana jorratu dugu. Sinbolo bat analizatzean bere kultura memoria eta ohiturak kontuan hartu behar direla ikusi dugu. Literatura testuetan sinboloak ikertzeko modu mitokritiko bat aurkeztu dugu. Eta azkenik, sinbolo oro, hura darabilen subjektuaren atzealde pertsonalaz haratago, hura aipatzen den espazio sozial eta diskurtsiboaren arabera irakurri behar dela ondorioztatu dugu. Literatura diskurtso guztiak dira zentzu fenomenoentzako iturri etengabea. Ikuspegi sinbolikoa giza esanahien mundurako sarrera enigmatiko eta erakargarria da.

Bibliografía

- ARAGÜÉS, J. (2002): «Preceptiva, sermón barroco y contención oratoria: el lugar del ejemplo histórico», *Criticón*, nº 84-85, 81-99.
- BAJTÍN, M. (1998): *Estética de la creación verbal*, México: Siglo XXI.
- BERISTÁIN, H. (2001): *Diccionario de retórica y poética*, México: Porrúa.
- BERGER, P.; SAMUEL, L.; y HUNTINGTON, P. (2002): *Globalizaciones múltiples. La diversidad cultural en el mundo contemporáneo*, Barcelona: Paidós.
- BEUCHOT, M. (2004): *Hermenéutica, analogía y símbolo*, México: Herder.
- BOURDIEU, P. (1990): *Sociología y cultura*, México: Grijalbo.
- CASTORIADIS, C. (2003): *La institución imaginaria de la sociedad*, Buenos Aires: Tusquets.
- CASTORIADIS, C. (1988): *Los dominios del hombre: las encrucijadas del laberinto*, Barcelona: Gedisa.
- CIRLOT, J. E. (2007): *Diccionario de símbolos*, Barcelona: Siruela.
- CHEVALIER, J.; y GHEERBRANT, A. (1999). *Diccionario de los símbolos*, Barcelona: Herder.
- DUCH, L. (2002): *Antropología de la vida cotidiana. Simbolismo y salud*, Madrid: Trotta.
- DURAND, G. (2004): *Las estructuras antropológicas del imaginario*, México: FCE.
- DURAND, G. (1993): *De la mitocrítica al mitoanálisis*, Barcelona: Anthropos.
- ELIADE, M. (2000): *Aspectos del mito*, Barcelona: Paidós.
- FRYE, Northrop (1991): *Anatomía de la crítica*, Caracas: Monte Ávila.
- GÓMEZ DE SILVA, G. (1988): *Breve diccionario etimológico de la lengua española*, México: FCE.
- JUNG, C. (1994): *Arquetipos e inconsciente colectivo*, Barcelona: Paidós.
- JUNG, C. (1983): «Psicología y poesía» en Ermatinger et al., *Filosofía de la ciencia Literaria*, México: FCE, 335-352.
- JUNG, C.; y KERÉNYI, K. (2003): *Introducción a la esencia de la mitología*, Madrid: Siruela.
- LANCEROS, P. (1997): *La herida trágica*, Barcelona: Anthropos.
- LOTMAN, L. (2003): «El símbolo en el sistema de cultura», *Entretextos: Revista Electrónica Semestral de Estudios Semióticos de la Cultura*, nº 2, <www.ugr.es/~mcaceres/Entretextos/entre2/escritos4.htm>, [03/04/2011].
- LOTMAN, L. (1996): *La semiósfera: semiótica de la cultura y del texto*, Madrid: Cátedra.
- PÉREZ, H. (2001): «Tradición y oralidad en el refranero mexicano», en Contreras, Pérez et. al., *La tradición hoy en día. Primer foro interdisciplinar de oralidad, tradición y culturas populares y urbanas. Memorias*, México DF: Universidad Iberoamericana, 15-70.
- PIMENTEL, L. A. (1998): *El relato en perspectiva*, México: Siglo XXI-UNAM.
- RAMA, Á. (1982): *Transculturación narrativa en América Latina*, México: Siglo XXI.
- RICOEUR, P. (2001): *Teoría de la interpretación. Discurso y excedente de sentido*, México: Siglo XXI.
- RICOEUR, P. (1999): *Freud: una interpretación de la cultura*, México: Siglo XXI.
- SEBEOK, T. A. (1996): *Signos: una introducción a la semiótica*, Barcelona: Paidós.
- VIDAL, J. (1997): «Símbolo» en Poupard, P. (dir.), *Diccionario de las religiones*, Barcelona: Herder, 1654-1660.
- WHITE, L. (1982): *La ciencia de la cultura*, Barcelona: Paidós.
- ZYLKO, B. (2005): «La cultura y la semiótica: Notas sobre la concepción de la cultura en Lotman», *Entretextos: Revista Electrónica Semestral de Estudios Semióticos de la Cultura*, nº 5, <www.ugr.es/~mcaceres/Entretextos/entre5/zylko.htm>, [03/04/2011].